

BUSTURIA. «Ondo pentsautako ekintzea» izan da, ingurumen boluntarioen eritxiz

Patronatua arduratuta dago hegazti behatoki bakarra erre egin dalako

Aurrerantzean be Galtzagorriak taldeagaz beharrean jarraitzeko konpromisoa agertu dabe

Onintza Enbeita |

Urdaibaiko hegazti behatokia erre egin eben areinegun gauetz. Behatokia, Galtzagorriak ingurugiro boluntarioen taldeak eregi eben orain dala urte bi, Busturiako San Kristobal auzoan. Ordutik hona, 10.000 bisitaritik gora izan dira Urdaibaiko paduretako hegaztiak ikusten eta ikertzen.

Galtzagorriak taldeko kideen eritxiz, «hau ez dago zoroaldiak emon deusan baten batek eginda, hau aurretiaz ondo pentsauta egindabe». Ingurugiro boluntarioek deia egin eutsien administrazio publikoari, behatokia barriro eregi ahal izateko. «Behatokia guk egin genduan beste inork ez ebelako egin gura izan. Orain, 10.000 pertsona pasau eta gero, argi geratu da beharrezkoa izan dana. Beraz, barriro eregitekotan, administrazioak ipini beharko dauz bitartekoak edo osterantzean berak eregi beharko dau», azaldu eben.

Patronatua arduratuta dago

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren patronatua arduratuta dago eskualdeko behatokia bakarra erre dabelako. «Tamalgarria da Urdaibaiko ondare naturalagaz gozatzeko guztiontzat eregitako behatokia holan hondatzea», adierazo dabe Patronatuko kideek.

Egon dan behatoki bakarra

erre egin dabe, eta beraz, hegaztiak behaketarako hornidura osoa galdu dau Urdaibaik. «Hori dala eta, Urdaibaiko Patronatutik Urdaibaiko Galtzagorriak plataformeagaz lankidetzan jarduteko konpromisoa agertu gura dogu, itsasadarreko hegaztiak behatzeko eta ingu-

DOAKO BEHARRA

Behatokia Galtzagorriak ingurugiro boluntarioen taldeak eregin eban orain urte bi, trukean ezelango ordainik jaso barik

rugiro hezkuntzarako bitartekoak mantentzeko», azaldu dabe Urdaibaiko Patronatuko beharginek. Behatokia osorik erre dabe, eta hegaztiak behatzeko bitartekorik bat be barik geratu da Urdaibai. Ez dira hondakinak baino geratu behatokia egoan lekuan.



ONINTZA ENBEITA

Leku zoragarria ezeze, hegaztiak behatzeko aproposa be izan da San Kristobaleko ingurua.

FORUA. Bariku iluntzean hasi, eta martitzen gauean elizeari buelta emonda amaituko dira jaiak

Programa bete ekitaldi ekarriko dauz San Inaziok astegoien guztirako

O. E. |

Etzi, iluntzeko 21:00etan hasiko dia saninazioak Forun. Txupinazoa izango da lehenengo eta gero, gaueko 22:30ean, kontzertua izango da. Bost taldek igoko dabe Foruko eskenatokira bariku gauean: Hits, Emaio, Skalaria, Triki Ta Ke eta Ekipa.

Zapatuan, garagarriaren 28an, umeen eguna izango da. Azkenengo 20 urteetako ohitureari eutsita, Fernando Abaunzaren omenezko margo lehia-

ketea izango da goizeko 11:00etan. Ostean, umeentzako jolasak egingo dira. Arratsaldeko 18:00etan, txinbera lehiaketea egingo da, eta, ostean, Gorriti eta bere animaliek beteko dabe Foruko plazea. Gaueko 23:00etan, barriro izango dira kontzertuak Anoa Postu, Ken 7, Etsaiak, Txapel Punk eta Ekipa taldeen eskutik.

Domekan, oster, gazterik gehienak lo egongo dirala eta, nagusientzako eguna izango da. Goizeko 11:00etan hasita, kalejirea izango da herrian ber-

tako musikiariakaz. Eguerdiko 12:00etan, mezea izango da Arratzuko kora kantaut. Ostean, Urdaibai dantzari taldearen saioa izango da. Gero, bazkaria izango da nagusientzat eta bazkalostean erromeri talde bat izango da nagusiek dantzan nahikoa egin daien.

Arratsaldeko 20:00etan, herri potea egingo dabe herritarrek tabernarik taberna. Laguntzaile eta dantza giroa sortzen Mezo eta Montxito trikitilariak izango dabez.

Mozorro bazkaria eta zaindariaren eguna

Astelehenean, herri bazkaria izango da Forun. Bazkarirako txartelak 2.000 pezeta izango dira, eta herriko tabernetan sal-

gai dagoz. Hori bai, bazkarira joateko derrigorra izango da mexikar jantzita egotea. Gero gauean, 22:00ak aldera, *Jalisco* Mariatxia izango da Foruko plazan.

Garagarriaren 31n, San Inazio eguna ospatuko da Forun. Eguerdiko 12:00etako mezearen ondoren, Busturialdeko erregelak egingo dauz Urdaibai dantzari taldeak. Gero, 13:30ean, Mieltxo Saralegi eta trontzalariak izango dira plazan. Arratsaldeko 19:00etan barriro izango da Urdaibairen txandea. Ostean, Txinako *Dinastia Imperial de Tangsiang* taldea izango da. Gaueko 22:00etan, urteroko moduan elizeari buelta emongo jako jaiak amaitzeko.

BEMEO

Santiago egunean jai hartuko dabe psikiatrikoan dagozan gaixoe

O. E. |

Gaur, Santiago eguna, jai egingo dabe Bermeoko psikiatrikoan. Dana dala, psikiatrikora joan baino arinago, mezea egongo da zaharren egoitzan. Mezea 11:00etan izango da, Sancti Spiritus egoitzan.

Meza ostean, ospital psikiatrikora joango dira uriko hainbat zahar eta gazte bisitea egitera. Bide batez, Irakaskintza kaleko jai batzordeak, Udalak eta herritarrek opariak emongo deutsez han dagozan gaisoei.

Santiago eguneko jaiak Irakaskintza kaleko auzokideek antolatzen dabe. Izan be, bertan dagoz psikiatrikoa eta Sancti Spiritus zahar egoitzea.

Mañun be jai izango da

Irakaskintza kalean ezeze, Mañu auzoan be jai egingo dabe Santiago egunean. San Kristobaletan hasi ziran jaiak Sollubera bideko auzoan, eta oraindino jaietan dagoz.

Gaur izango da jaietako azkenengo eguna, eta atzo amaitu ziran zaldi probak. Astegoien bitan egin dira zaldi probak, eta atzo egin eben sari banaketea. Gaur, sukalki txapelketea izango da Mañun trikitilariak alaituta. Kazuelak 14:00 ingururako aurkeztu beharko dira.

AGENDEA

NABARNIZ

Santiago eguna: Gaur, egun osoko jaiak izango da Nabarnizen. Goizeko 11:00etan hasita, musika, txapelketak, ipuin lehiaketak sari emotea eta abar izango dira.

BERMEO

Zine kluba: Bihar iluntzeko 21:00etan, Laszlo Benedek zuzendariaren *Salvaje* filmea eskainiko dau Gazte Press alkarteko Midwich Cuckoos zine klub taldeak, Nestor Basterretxea kultur aretoan.

GERNIKA-LUMO

Erakusketea: Garagarriaren 27an, hau da, etzi, izango da Ricky Lasa eskultore eta taila egilearen obrak ikusteko azkenengo aukerea, kultur etxean. Erakusketea hil hasieran zabaldu zan, eta barikuan itxiko dabe.